

PRENTSA-OHARRA

Teknikerrek aurrerapausoak eman ditu nerbio periferikoko lesioak lehengoratzeko inplanteen garapenean

- *Euskal zentro teknologikoak nerbioen funtzionamendua lehenera ekartzen duten inplanteak garatu ditu, biomaterialen eta fabrikazio aurreratuko teknologien konbinazioari esker*
- *Animaliekin emaitza arrakastatsuak lortu dira, eta ACS Biomaterials Science and Engineering aldizkari zientifiko ospetsuan argitaratu dituzte*
- *Egitasmoa NEURIMP proiektu europarrean kokatuta dago, eta, Teknikerrez gain, Europa-mailako enpresek, aholkularitza-enpresek, unibertsitateek eta ospitaleek hartu dute parte*

[Eibar, 2021eko maiatzak 6] – Oro har, istripu traumatikoek eragiten dituzte nerbio periferikoko lesioak, eta eragin nabarmena izaten dute pertsonen bizi-kalitatean, kontrol motorra galtzea eta zentzumen-funtzioak asaldatzea ere eragin dezaketelako.

Medikuntza birsortzaileak nerbio-sistema periferikoan lesioak izan dituzten pazienteei ebakuntza egiteko aukerak eskaintzen ditu. Besteak beste, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea den **Tekniker** euskal zentro teknologikoaren aurrerapenak daude hor. Bada, zentro teknologikoak NEURIMP proiektu europarraren esparruan egin ditu aurrerakuntzok, eta animaliekin egindako entsegu preklinikoetan lorturiko emaitza arrakastatsuak **ACS Biomaterials Science and Engineering** zientzia-aldizkari amerikar ezagunean argitaratu dira.

Soluzioak bestelako aukera bat ematen du, istripu traumatikoak izan dituzten pazienteei inplante autologoak jarri behar ez izateko.

Beraz, inplante horiek ordezkatzeko, Teknikerreko ikertzaileek belaunaldi berriko material biobateragarri eta biodegradagarriak eta fabrikazioko teknologia eskalagarriak konbinatu

dituzte, nerbio periferikoaren funtzionamendua lehengoratzeko lortzen duten inplante aurreratuak garatzeko.

"Lesionatutako nerbioaren etena berreraikitze eta lehengoratzeko prozesuan gidarilantetan jarduten duten hodi biomimetikoak garatzen ditugu", zehaztu du Iban Quintana Teknikerreko ikertzaileak.

Zentro teknologikoak, proiektua koordinatzeaz gainera, zentroaren espezializazio-arloetan (gainazalen ingeniarietan eta fabrikazio aurreratuetan) integratutako teknologiak garatu ditu; hala nola, eskala mikrometrikoko garatu du polimeroen prozesaketa, inplantearen egitura tubularra (mikrokanalez osaturikoa) optimizatzeko xedez, jatorrizko nerbioaren geometria mimetizatuz.

Euskal zentroak, era berean, partzuergoko beste erakunde batzuek sintetizatutako polimero sintetikoekin eta naturalekin egin du lan, baita bien arteko nahasketekin ere, eta material berrien ezaugarri biofisikoetara egokitu ditu mikrofabrikazioko teknologiak.

Baliozkotze arrakastatsua animalien gainean

Teknikerren teknologia berritzailearen bideragarritasuna eta eraginkortasuna baliozkotzeko, entsegu preklinikoak egin dira animaliekin (zehazki, arratoiekin). Hala, nerbio ziatikorako inplanteak jarri zizkieten, eta inplante komertzialekin baino emaitza hobekiago lortu zituzten.

"Aurrerapenak bitarteko espezializatueta argitaratuz, aitortza egiten zaio Teknikerren egiten ari den ikerketaren kalitateari, eta medikuntza birsortzailearen eremurako soluzioen garapena sustatzen da", gaineratu du Iban Quintanak.

Horren erakusgarri, Tekniker nerbio-giden fabrikazio-prozesu jasangarri bat diseinatzea pentsatzen ari da (Nerve Guidance Conduits: NGCs), bai eta biomaterialetan oinarritutako fabrikazio aurreratuko jarduerak erabiltzeko eta praktikan jartzeko gai izango diren profesionalen prestakuntza bultzatzea ere.

Teknikerren garapenak jarraitutasuna ematen diote NEURIMP proiektu europarrean irekitako ikerketa-lerroari. Bada, NEURIMP proiektua 2017aren amaieran amaitu zen, eta honako hauek osaturiko partzuergoa izan zuen bidelagun: [Toledoko Paraplegikoen Ospitale Nazionala](#), [Histocell](#) euskal enpresa biofarmazeutikoa, [Sheffield](#) eta [Westminster](#)

unibertsitate britainiarrak, Oserve aholkularitza-enpresa holandarra eta Vornia Biomaterials (Irlanda) nahiz **Contipro** (Txekiar Errepublika) biomaterialen enpresak.

Egitasmoa Europar Batasunaren Ikerketa eta Garapen Esparru Programaren zazpigarren edizioan kokatuta dago, eta, gainera, Europako Batzordeak kasu arrakastatsu izendatu zuen. Era berean, Tekniker Cervera bikaintasun-zentroa da lehentasunezko teknologian: hau da, material aurreratuetan (Surfera Sarea).

Proiektuak 3. Osasuna eta ongizatea eta 9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura GJHetan eragiten du, garapen jasangarriaren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-zutabeei eta, azken batean, gizarte osoari laguntzen baitie.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta fabrikaziorako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

This project has received funding from the European Community's Seventh Framework Programme (FP7-NMP-2013-SME-7) under grant agreement no 604450.